



◆ SASKIBALDIA Hernanik Neguko Kopa irabazi du

Hernanik Neguko Kopa irabazi du Zarautzen kontra jokaturako finalean. Eraitza 53 eta 76 izan zen hernaniarren alde. Lehenengo partidua 51-46 irabazi zuten, baina ez zuten aurreneko partidua horretan ateratako tantoen beharrik izan. Hernanik espero zuena baino errazago irabazi zuen, fin aritu baitzen. Orain urtarrila arte atsedenaldia dute, Federazio Txapelketan hasi arte. Bertan jokatu dute Gipuzkoako 1 eta 2garren mailako junior mailako taldeek. Aurreneko 12 taldeak 1garren mailan jokatu dute. ||

❖ BERTSOLARITZA- Euskal Herriko bertsolari txapelketako finala

Andoni Egaña txapeldun BECen eta Maialen Lujanbio hirugarren



Aitor Mendiluze, Hernaniko Bertso Eskolako andoaindarra, seigarren gelditu zen. Bigarren postua Unai Iturriagak lortu zuen.

ANDONI Egañak irabazi du 2005eko Euskal Herriko Bertsolari txapelketa, 13.000 lagunengatik aurrean, Barakaldoko BEC aretoan. Maialen Lujanbio hernaniarra hirugarren postuan gelditu da, Egaña eta Iturriagaren atzetik. Maialenek hasiera ona eman zion saioari, baina, arratsaldean berotzea kosta egin zitzaion eta buruz burukotik kanpora gelditu zen. Aitor Mendiluze Hernaniko Bertso eskolako andoaindarra seigarren gelditu zen. (2-3 orriak) ||

Udaltzaingoaren bulegoak Agustinatako lokal berrietara aldatuko dituzte

UDALAK erabaki du Udaltzaingoaren bulegoak Agustinatako lokal berrietara aldatzea. Antxon Costa zinegotziak gogorazi du zerbitzuko arduradunak aspalditik zebiltzala lokal haundiago eta egokiago batzuk eskatzen, "Udaletxeko beheko solairuko bulego prekarioak baina egokiagoak" azaldu du. Antxon Costak dio zerbitzuko arduradunak pozik daudela erabakiarekin, Agustinatako lokala egokia dela uste baitute: herri erdigunean kokatzen da eta berria izanda egokitu ahal izango da zerbitzua beharretara.

Udaltzaingoaren egoera hobetzeko hasiera batean bi aukera izan zituen Udalak esku artean. Aukera bat izan zen Udaltzaingoa anbulategi zaharrarera pasatzea, baina horrek ekartzen zuen bertan zeuden zerbitzuak beste lokal batzuetara aldatzea eta azkenean Agustinatako lokala egokiagoa dela erabaki dute. ||

Sahararen aldeko janari bilketa antolatzeke bilera dago bihar

MARTXAN da Sahararen aldeko bigarren euskal karabana eta antolatzen hasteko bilera deitu dute bihar. Otsailean aterako da karabana Sahara aldera eta helburua da ahalik eta elikagai gehiena ematea Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetara, premia handian baitaude bertan. Urtarrilaren 22an bukatuko da janaria biltzeko kanpaina. Herritarrei eskatuko zaie herrian zehar jarriko dituzten kutxa ezberdinetan uztea, atuna oliotan, azukrea eta konpresak. Laguntza ekonomikoak ere egin daitezke honako kontu honetan: Euskadiko Kutxa 3035 0080 94 0800054177. Karabana antolatzen dute Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkartearen Koordinakundeak, Euskal Fondoaren laguntzaz. Bilera arratsaldeko 19:30etan da, Biterin. ||

❖ AMHER Bilera gaur

AMHER elkarte multikulturalak bilera egingo du gaur (ez asteartean). Elkartean biltzen dira kanpotik etorritako herritarrak eta bertan jaiotakoak. Jendea animatu nahi dute parte hartzera. Bilera arratsaldeko 19:00etan da, Iturritxo auzo elkartearen (Latxunbe Berri 2). ||

❖ JUBILATU ETXEA Relajatzeko ikasteko tailerra

Goiz Eguzki jubilatutako etxean relajatzeko ikasteko tailerra hasiko dute. Norberaren emozioei erreparatu eta relajatzeko irakatsiko du psikologo batek. Tailerra goizez izango da eta helburua du bizi kalitate hobetzea. Izena emateko epea urtarrilaren 6an bukatzen da. Bulegoko ordutegia da: astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 16:00etatik arratsaldeko 18:00etara. ||

ORDAINDU ZURE EROSKETAK BERRIAK TXARTELAREKIN

BERRIAK txartelarekin ordaintzen duzun erosketatan %5eko deskontua izango duzu denda hauetan

%5

Promozioa abenduaren 1etik 31ra

Aitor Peña Fruteria - Larramendi 5
Jaione Konjelatuak - Elkano 1
Urrats Oinetakoak - Iturriaga 3
Ezkerro fruitak - Antziola 1
Tiipi-Tiapa - Gudarien plaza 12
Irigoyen oinetakoak - Elkano
Mixel Kirolak - Karobieta 1
Lorraz Sport - Ispizua
Ibai-Mendi - Nafar kalea 23
Masusta Ekodenda - Kardaberaz 43
Dietetika Goxo - Nafar kalea 21
Amegar Etxe Tresnak - Txirrita 15
Etxarri Argazkilaritza - Urbieta 8
On Bit Informatika - Elkano 16
Aurki Manualidades - Elkano 6
Hoki Lentzeria - Latxunbe 4
Haizea Kortsetegia - Kardaberaz 2
Apain - Nagusia 24
Ipotx Haur Denda - Nafar kalea 17
Hogar y Moda Fely - Karobieta 1

Valen - Latxunbe 1
Amboto - Nagusia 54
Confecciones Marian - Ispizua 23
Distira - Nagusia 27
Oihala - Elkano 11
Arregi Altzariak - Elkano
Ezkati Ileapaindegia - Iturregi 25
Amaia Arrandegia - Kardaberaz 34
Mariscos Hernani - Nagusia 20
Galerias Buen Precio - Gudarien plaza
Kaixo Bolsos y Complementos - Nagusia 9
Hernani Bidaiak - Juan de Urbieta 6
Tapicerias Eder - Txirrita 7
Ispizua, 13 - Ispizua kalea, 13
Alkorta Harategia - Nafar Kalea, 11
Kulunka artisautea - Ispizua Kalea, 1
Asun Esnal Bitxidenda - Larramendi 5
Iñaki Alkorta Diseinua - Kardaberaz 39
Lete liburudenda - Nagusia 20

gse
Asesoreak

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www@gseasesores.net

CATALANA OCCIDENTE

Aseguruak

Atzietta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

Bautista-Biurrarena Etxegaien

Andoni Egañak laugarren txapela jantzi du, saioan zehar gora eginda

Unai Iturriaga eta biak iritsi ziren buruz burukora baina poto batek txapelerako aukerarik gabe utzi zuen durangarra. Maialen Lujanbio ondo hasi zen goizean baina errematatzea falta izan zitzaion.

ANDONI Egañak orain arteko marka guztiak hautsi eta laugarren txapela jantzi zuen atzo BECen, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean. Ez zion txapelketari hasiera oso ona eman zarauztarrak goizean, baina, poliki-poliki gora egin zuen. Goizeko azken saioan bakarkako ona osatu zuen, "aspaldiko partez begiak busti zaizkizu" gaiarekin: Andonik zortzigarren egin izanaren pena zuen eta etxera iristean goizean animoak eman zizkion semeak kontsolatu zuen "ez du ajola" batekin. Arratsaldean goia jo zuen zarauztarrak eta laugarren aldiz jantzi zuen txapela, inongo aitzikiarik gabe. Txapela Imanol Lazkano bertsolariak jarri zion eta biek ala biek ez zituzten malkoak urruti izan momentu hunkigarri horretan.

Maialen, hirugarren

Maialen Lujanbiok bere egunik onena ez zuela izan aitortu zuen saio ondorengo prentsaurrekoan, burua nahi baino nekatuago izan zuela, "lanbrotuta". Hala ere, ez zuen saio txarra egin hernaniarrak, baina, ondo hasitakoa ezin izan zuen maila berean bukatu. Goizean oso goitik ekin zion zortziko haundian Iturriagarekin, eta bakarkakora arte ondo aritu zen. Bakarkakoan doinu berria atera zuen hernaniarrak, entrenamenduetan ondo landua, baina, atzo ez zion zuku guztia atera *Kataluniako* doinu zaharriari. Aldarteak aldarte, goian bukatu zuen Maialenek goizeko saioa. Saiorik politena bakarkoan egin zuen arratsaldean, beste bi ofizioetan txukun aritu arren. Bakarka entrenatzaile paperean kantatu zion, futboleantalduta lur jota dagoen umeari: irabazten ikasteko lehenbizi galtzen ikasi behar dela esan zion neskatoari lehen bertsoan eta lotsatu eta bel-



Atzo bertsolariak BECen, honuzkaldean Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze direla.

durtu gabe bere buruari eusteko gomendioarekin bukatu.

Iturriagaren potoa

Iturriaga izan zen atzo BECen Egañarekin batean txalorik gehien jaso zuena. Egun osoan oso goitik ibili zen eta umore puntua jarri zion saioari. Arratsaldean ere ondo egin zuen bertsoan eta sei puntu ariketan nahiz bakarkakoan bikain aritu zen. Buruz

burukoak Egaña eta biak parez pare jarri zituen eta Iturriagak poto nabarmena egin zuen hamarreko haundian, eta hor galdu zituen txapela irabazteko aukerak. Esan liteke durangarra txapela laztantzeraino iritsi zela eta bera ere gustora zegoen saio ondorenean nabarmendu zuenez.

Mendiluzeren malkoak

Mendiluzek ez zuen finalau-

rekoetako mailarik eman baina utzi zuen jendearen buruan zenbait ale. Goizeko kartzelakoan bere emazte eta semeari kantatu zion "aspaldiko partez begiak busti zaizkizu" gaiean eta barrua mugituarazi zion entzuleei, bene benetako aitorpenarekin.

Horiez gain, Ametsek ere saio oso ona egin zuen atzokoa eta laugarren gelditu zen Maialenek adina punturekin,

eta entzulearen txalo zaparradapean; Sustrai Colinak ere finalurrekoetan baino askoz irudi hobea eman zuen eta erantzun biziak eta umore fina erakutsi zituen atzo Barakaldon. Elortza oso presatua irten da aurtengo txapelketan, baina, atzo ez zuen finalurrekoetan adinako mailarik erakutsi eta Jon Maia ere bajuago aritu zen aurreko saioetan baino. ||

Bertsolariak	GOIZA					DENERA
	Binaka 8ko handian	Binaka 8ko txikian	Bakarka: puntua emanda	Binaka: 10eko txikian	Kartzela: bakarka	
Andoni Egaña	141,5	205	98,5	149	158,5	752,5
Maialen Lujanbio	159	195	94,5	146,5	149,5	744,5
Ametz Arzallus	141,5	192,5	92,5	135,5	154	716
Jon Maia	147	188	91	139,5	133,5	699
Igor Elortza	142	182,5	97,5	139	149	710
Aitor Mendiluze	137,5	178	89,5	146	134	685
Unai Iturriaga	158,5	208,5	91	147	149	754
Sustrai Colina	131	207	82	140,5	142	702,5

Bertsolariak	ARRATSALDEA					BURUZ BURUKOA		
	Binaka 6ko motzean	Binaka 8ko txikian	Bakarka	Binaka: 8ko txikian	Binaka: 10eko handian	Kartzela: 9ko motzean	Kartzela: bakarka	DENERA
Andoni Egaña	151,5	207,5	156,5	159,5	159	55,5	154,5	1044
Maialen Lujanbio	143	170,5	148,5	0	0	0	0	462
Ametz Arzallus	144	197	149,5	0	0	0	0	490,5
Jon Maia	147	171	139	0	0	0	0	457
Igor Elortza	147,5	168,5	148	0	0	0	0	464
Aitor Mendiluze	149	182,5	139,5	0	0	0	0	471
Unai Iturriaga	158,5	184	156	149,5	137	51	156	992
Sustrai Colina	140,5	183	145,5	0	0	0	0	469

"Izan ziren, gaur badira, gu ere izanen gara"

BERTSO maila ona izan zen atzo BECen eta bertsolari guztiek utzi zuten gogoan hartzeko aleren bat; batzuek bat baino gehiago. Goizean Maialen Lujanbiok hasiera ona eman zion saioari, agur-eretik hasita:

Pasa Max Center, pasa Dechatlon, Ikea ta BEC azaldu aurrez Baluarte, Tabacalera, eta Guggenheim zapaldu mila milioien kultur eredu negoziotik ez salbu eskaparate dizdiratsuak nahiz ta oinarria saldu gu ez gera hau, denda txikiak, saio txikiak gara gu gu ez gera frantses, gaztelera, ingles gureak hots xumea du, baina hona etorri ta betetzeko konplejurik ez daukagu.

Ofiziotan, Iturriagak eta biek saio polita egin zuten aspaldi-ko partez elkarrekin bakarrik dauden bikotearen paperean. Maialenek perla hau utzi zuten:

Ez da bat eta ezta bi ere hiru, ta hiru da hiru. Hiru neke ta hiru lan karga bider hiru: zenbat diru. umeak nola gainetik kendu pentsatzen gabiltz beti gu ta orain bakarrik geratu eta ia zer ein ez dakigu

Iturriaga eta Sustraiak nagusia eta langilearen paperean kantatu zuten. Iturriaga langilea Sustrairekin dijoa kotxean eta bildurtuta doa abiadurarekin.

...zanpa zazu balazta hara! hara! hara! hori ertzainen kotxe kanuflatu bat da

Sustrairen erantzuna:
...aizu horiek dira

nerre bizkarzainak enpresa berekoak baitira ertzainak

Iturriagak bukaera:

...botaka egin behar dut ta ez da nire kulpa hara zure Audia proletariatuta

Eta Sustraiak errematea:

...egin zazu botaka utzi zazu marka gaur zu zaude botaka ta bihar botata

Aitor Mendiluzek goizean bota zituen bakarkakoek jendeari barrena mugitu zien, gaur begiak bustita dauzkazu gaiarekin:

...pentsatuz beste aukera nola irtengo ote da bigarrena ere galdu genuen ilusioaz batera baina orduan ere zergatik ez zen malkorik atera

Halere Idoia animatzeko hartu nuen nahiko kemen bere gogoa, bere indarra ez baizen oso nabarmen holakoetan aitaren lana babes ematea omen eman nuen bai baina neuk ere beharra sentitu hemen pasa zaionak ondo badaki haurtxo bat galtzea zer den baina bi galdu ondoren horra Jontxu non dagoen eta malkoak atera zaizkit eskuz estali baino lehen zuk lasai seme utzi negarrez aspaldi egin nahi nuen

Arratsaldekoa

Arratsaldean azpimarratzeko moduko bertso asko joan zen. Adibidez, ofiziotan Amets eta Unai soldadu zaharra eta gaz-

tea. Trintxeretan daude eta etsaia inguratzen. Gerra galtzera dijoaz. Bat urduri dago eta bestea ez.

Unaiak:

...zuk aditu ondo zaharra etzazu pasatu marra hildako ausarta baino hobea da bizi koldarra

Edo:

...ze tiro ta ze ostia! hau da munduan uzkia bulegon baten erabakita daukate guztia

Ametsak:

...bulegoko irudia ahaztazu berdin du ia zapia baino nahigo dut nik maindire zuria

Edo:

...galtzen badugu zergatik badakizu ta badakit koskabilorik ez daukazuen soldaduengatik

Bakarka Lujanbiok hau bota zion, entrenatzaile paperean, lurjota zegoen jokalaritari:

Zure galtzamotx zure galtzerdi ta margo horiko peto Ronaldiñoren botak jantzita etorri zera konpleto porteriaren azpian zeunden baloi guzien menpeko baina dexente sartu zaizkizu eta zu lurjota seko ez egin negar hiru gol triste direla eta tarteko ez naiz nekatzen adorea dut lasai lasai esateko aurrena galtzen ikasi behar da irabazten jakiteko.

Iturriagaren bakarkakoa ere polita izan zen. Gaia: zure urtemuga eguna da. Bakarrik zaude eta zoriontzeko ez dizu inork deitu.

...zigarro bat piztu eta itxoingo diet horrela baina denbora badoa ta tristezia umela negar egiteko gogoz urtebetetze krudela uste nun baten batentzat garrantzitsua nintzela neuk ere ez nien deitu izorratu daitezela

...euren kontura bizi naiz egunero taupa taupa baten eta bestearen nobia sarri dut hauta akaso hartatik ez daude zoriontzeko pretauta baina gaur egun jendeak eruririk ere ez dauka

Andonik ere lan ederra egin zuen bakarka. Madrilerako koardilarekin opor bidaian joan, galdu eta Auzitegi Nazionalako eskailerekin egin duzu topo.

...azkenerako eskaileretan kontzientziakin liskarra ai! Entzutegi Nazionalari hobe det eman bizkarra epaile aurrean izan ninteke txuloa eta oilarra baina ni zer naiz kokolotxoa zer naiz euskaldun baldarra ni izango naiz zitatuta gabe presentatu den bakarra

...ta ezer txarrik egin gabe're urte luzeen kondena etorri eta hemen kokildu hori litzake txarrena proba txiki bat egin behar dut noan atean barrena epailearena hiru hitzetan kontatuko diot dena ni naiz Juglares Sabelotodo definitu zenuena Buruz burukoan aulkia hitzari kantatu zion 9 puntukoa ere dotorea izan zen.

Atsedena hartzea

ez degu kalteko eta hori lortzen da bera tarteko aulkia gauza ona da bila joateko nahiz aspaldian hemen gu gauzkan menpeko hainbat ikusteko edo erosteko lkean bai lepo desberdinak seko baina ezetz txirik behiak jeizteko

Dotore Mendiluzek kantatu zuen azken agurra, lehen egindako bakarkakoari segi-da emanaz:

Mila zorion Andoni zuri lau badituzu jasoak besteengatik ere astindu nahi ditut nere besoak bueno nik zer bait egin det ondo izan arren arazoak igual ez ziren goxoak ta entzuteko erosoak baina barruak eskatzen zidan ta bota ditut osoak orain bi urte kantatu gabe utzi nituen bertsoak

Azken saribanaketan Euskal Herriko 7 probintzietako bertso ikasleen artean puntutan kantatu zuten bertsoak erremate hunkigarria eman zion

X.Igoa (Araba)	Bertsolariz bete zaigu azken aldian Araba
I.Uria (Bizkaia)	Bizkaian ere nogaitik eta non ikasi bada
A.Otaegi (Gipuzkoa)	Gipuzkoan herriz herri eta bailaraz bailara
M.Irigoien (Lapurdi)	Iparraldean biziki goaz bertso eskolara
I.Tainta (Nafarroa)	Nafarroan ere badugu bertsoarako parada
B.Luku (Baxenaf.)	Baxenafarroan fite jalgiko gira plazara
B.Negeloua (Zuberoa)	Xiberun koblakai zumbait berriz sortu gia jada
Denak	izan ziren, gaur badira gu ere izanen gara



'Intxadak' gogotik animatu zuen. Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze ez ziren bakarrik izan BECen, izan zuten nork animatua. Hernanitik 250 lagun joan ziren atzo Barakaldora, 3 autobusetan asko eta beren autoetan gainontzekoak. Goizean nahiko buila izan zuten Hernaniko Bertso eskolako bi kideek eta arratsaldean are eta gehiago, ondo bazkalduta gero. Argazkian Hernaniko Bertso eskolako zenbait kide ikusten dira bazkaltzen, arratsalderako beren kinielak adostu ezinda. ■

Bost lehenengoak ostiralean Hernanin

EUSKAL Herriko Bertsolari txapelketako bost lehenengoak Hernaniko kiroldegiko frontoian ariko dira bertsoan, Iñaki Zelaiarekin batean. Saioa datorren ostiralean izango da, abenduak 23, gaueko 22:00etan. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Iñaki Zelaiak kantatuko dute Bertso Latako saio nagusian (sarrerak salgai Tripontzi, Oindi, Kitto eta Aralar tabernetan, 5 eurotan).

Horrez gain, ekitaldi gehiago ere izango dira aurtengo Bertso Latan: datorren asteazkenean, Santo Tomas eguna, kalean bertsoan ariko dira Hernaniko Bertso eskolako kideak, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Abenduaren 30ean berriz, bertso afaria izango da Aitor Mendiluze eta Jexumari Irazurekin, Zumardi jatetxean.

Urteroko moduan, urte zaharretako erronda ere izango da aurtengo Hernanin, Ohitura Zaharrak abesbatzaren eskutik.

TELEFONOAK: Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK: Egunez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 - 943 554892 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giro eguzkitsua nagusituko da baina goizean zehar laino batzuk agertuko dira. Tenperatura minimoak jeitsi egingo dira, maximoak aldiz igo.

BIHAR Eguzkia jaun eta jabe izango da asteartean. Goizaldean behe-lainoa sortuko da. Tenperaturak pixka bat igoko dira.

ATLETISMOA



Kadete, beterano eta senior sarituak, antolatzaile eta udal ordezkariekin batean, atzo Karabelen.

Parte hartze haundia eta eguraldia lagun atzo VII Karabelgo Krossean

PARTE hartze haundia izan zen atzo goizean VII Karabelgo Krossean. Jende gehiena helduen kategorietan bildu zen, antolatzaileen hitzetan 150 lagunetik gora izan baitzen korrika. Benjamin, alebin eta infantiletan 60 bat korrikalarik hartu zuten parte. Ez zuen euririk egin eta ikustera ere jende asko animatu zen. Hona hemen klasifikazioa:

Benjaminak (neskak)	Benjaminak (mutilak)	Kadeteak	Beteranoak (emakumeak)
1 ELENE SUSPERREGI	1 JON MURUA	1 MANEZ PAGOLA	1 ANDONE ELIZONDO
2 IRATI ALTUNA	2 AXEL SANZ	2 MIKEL JAUREGI	2 INMACULADA ZUZUARREGI
3 ANE BENGUA	3 PERU ERROIZENEA		3 JOSUNE MURUA
Alebinak (neskak)	Alebinak (mutilak)	Beteranoak (gizonezkoak)	Senior (emakumeak)
1 OLAIA AUZMENDI	1 MARKEL ERDOZIA	1 ALEX GARCIA	1 ALICIA OLAZABAL
2 MADDALEN ADARRAG	2 ANDER POLAINA	2 PEDRO MENDEZ	2 EVA ESNAOLA
3 ANDREA ORTEGA	3 PAUL SUSPERREGI	3 XABIER LIZARRAGA	3 MIRIAM GARCIA
Infantilak (neskak)	Infantilak (mutilak)	Senior (gizonezkoak)	
1 MIRIAM ARROZPIDE	1 AITOR ODRIUZOLA	1 PEDRO JOSE HERNANDEZ	
2 ANE GARCIA	2 TXOMIN BENGUA	2 IÑAKI LOPETEGI	
3 ENARA IRADI	3 IRADI GARMENDIA	3 IKER LARREA	

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

Gorengo mail.	Aretxabaleta-Hernani	3-1	Gipuz. Liga	Izarraitz-Hernani A	01-52
Gaz. L. Nazional.	Santutxu-Hernani	1-1	Gipuz. Liga	Hernani A-Izarraitz	26-02
Gaz. 1. Maila	Beti Gazte-Hernani	2-0	SASKIBALOA		
Kad. Ohor. Lig.	Hernani-Ordizia	3-3	Neg. Kop. Finala	Zarautz-Hernani	53-76
Inf. 1. Maila	Urnieta-Hernani	0-0	PELOTA		
Inf. txikiak	Lagun Onak-Hernani	4-1	Aizpitarte-Grajal/Amezqueta (Ropon-Legarreta)		22-18
ERRUGBIA			Alvarez-Gorrotxategi/Azpeitia (Beobide-Uzkudun)		22-16
Senior B	Hernani B-Gaztedi B	25-03	Zabala-Jauregi/Lucas-Lujanbio		30-28
Jub. Eus. Lig.	Hernani-Ordizia	71-00	Ojuel-Nuñez/Telletxea-Galarraga		22-16
Kad. Eus. Lig.	Hernani-Ordizia	00-24	BOLEIBOLA		
Infantila	Hernani-Quesos	05-15	Senior mutilak	UPV Hernani-Trueba Sestao	3-0
Alebina	Hernani-Quesos	15-05	Senior neskek	Sto Tomas-Hernani	3-2
Benjaminak	Hernani-Quesos	30-15			

PELOTA



Zabala, Jauregi, Lucas eta Lujanbio finalean. (Arg: Gabino)

Nagore Zabala eta Garazi Jauregi Gipuzkoako txapeldun

NAGORE Zabala eta Garazi Jauregi Gipuzkoako txapeldun izatea lortu dute, jubenetan, paletan. Finala ostiralean jokatu zen eta Hernaniko beste bikotea izan zuten aurrez aurre, Leire Lucas eta Ane Lujanbio. Partidua nahiko berdindua bukatu zen, 30 eta 28. ||

FUTBOLA - Gorengo maila Hernanik 3 eta 1 galdu zuen Aretxabaletaren kontra

Hernanik, Gorengo mailan, 3 eta 1 galdu zuen atzo Aretxabaletaren kontra jokaturako partidua. Aretxabaletak 3 golak aurreneko zatian sartu zituen eta bata bestearen atzetik eta partidua beregantu zuen. Hernanik bigarren zatian asko presionatu zuen baina ez zuen partiduari buelta ematea lortu. Gola Iñigo Vilak sartu zuen.

Bestetik, bihar, Labaien tomeoko partidua jokatuko dira Zubipen: arratsaldeko 17:00etan R.Sociedad/Añorga jokatuko da eta 19:00etan Hernani-Lengokoak. Finala datorren larunbatean jokatu dute. ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

25 urteko Administraria lan bila. Deitu: 660 580 862

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. Prezioa 4000 €. Interesatuek deitu: 618 816 960

2006ko Egutegia

Prezioa: 3,00 €

Ilbehera ● Ilberri
Salgai ohiko tokietan

ILBETZA

Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.

Ezkerro

Ezkerro frutak
- Antziola 5 -



Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75

Bertako fruta eta barazkiak. Fruitu exotikoak; jateko loreak, alfalfa, soja germinatua, frambuesa, arandanoak...